



NAFARROAKO IKURREN LEGEA ETA EUSKARAREN FORU DEKRETUA

Gobernuaren politikari erantzuteko, intsumisioa iragarri dute 24 alkatek

Nafarroako banderaren ondoan ikurrina jartzea eta Euskararen Foru Dekretuari muzin egitea hitzartu dute

Nafarroako nortasunaren aurka «gertatzen diren erasoei» aurre egiteko hartu dituzte bi erabakiak /6

IHESLARI POLITIKOAK

Hainbat omenaldi izan ziren atzo iheslarien alde

Iruñeko omenaldia ezin izan zen egin, Espainiako Poliziak galarazi zuelako Portugalera omenaldiak sortu zuen ikusmin handiena, baina Anjel Alcaidek inolako arazorik gabe hartu ahal izan zuen parte ekitaldian eta manifestazioan. Ertzaintzak jakinarazi duenez, ez dute jaso Alcaide atxilotzeko agindurik. /7

IRAKI ERASOTZEKO ASMOA

Manifestazio jendetsuak mundu osoan gerraren aurka

200.000 lagun inguru bildu dira Washingtonen AEBetako presidente Bushi bakea eskatzeko

Gerraren aurkako elkarretaratze eguna izan zen atzo mundu osoan. Europako, Asiako, Afrikako, Amerikako eta Ozeaniako hainbat herrialdetan manifestazio jendetsuak egin ziren AEBei gerra asmoak bertan behera utz ditzan eskatzeko. Washington AEBetako hiriburuan 200.000 lagun baino gehiago bildu ziren, antolatzaileen arabera, eta San Frantziskon, 100.000tik gora. Frantzian ere manifestazioak izan ziren hiriburu gehienetan. Euskal Herrian, Baiona eta Donibane Lohizunekoak izan ziren jendetsuenak. /18-19



THOMAS WIRTH / EPA

Estrasburgon milaka lagun bildu ziren gerraren aurkako manifestazioan.

KIROLA

FUTBOLA

REALA	1
CELTA	0

Realak lehen postuari eutsi dio; Alaves-Osasuna eta Deportivo-Athletic jokatu dira gaur. /22-24

ELKARRIZKETA

JAVIER IRURETAGOiena
Deportivoko entrenatzailea

«Ekainean hau amaitu dela ikusten badut, etxera itzuliko naiz, Bilbora» /25



Edredoi bat zuretzat !!

Ikus 28. orrialdea